

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AMURRIOKO UDALA

#### **Hasierako onspena ematea Amurrioko SAPUR 1 sektoreko R4/6.7 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari. Espedientea 2021/S455/1**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko irailaren 23an hartutako erabaki baten bidez, hasierako onspena eman zitzaion Amurrioko SAPUR 1 sektoreko R4/6.7 lurzatiaren xehetasunezko azterlanari, Federico Barrenengoan kalean, zeina Vivienda y Suelo de Euskadi SA, VISESAren ekimenez izapidetu baitzen.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, 98. artikuluan xedatutakoa betez, espedientea jendaurrean jartzen da Amurrioko Udalaren Hirigintza Sailean, hogeit (20) egunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, aukera egon dadin aztertzeko eta alegazioak aurkezteko.

Amurrion, 2021eko urriaren 7an

*Alkatea*

*JOSE RAMÓN MOLINUEVO LAÑA*